

**“PORTUGALETEKO FOLKLORE NAZIOARTEKO FESTIBALA” HARRERA
RECEPCIÓN “FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOLKLORE DE PORTUGALETE”**

2024-07-24 Lehendakaritza 24-07-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egun on guztioi!

Eskerrik asko, bihotzez, gaur gurekin izateagatik. Eta eskerrik asko, bereziki, kulturari ematen diozuen indar eta hauspoagatik.

Portugaleteko alkatea, Portugaleteko Folklore Festibaleko zuzendari eta arduradunok, Elai Alai Dantza eta Musika taldeko lagunok, eta gaurkoan gurekin zaudeten bisitari guztiei, ongi etorriak Lehendakaritzara! Zuen etxean zaudete.

Be very welcome to Euskadi. I really hope you are enjoying your stay at our Country. We want you to feel like at home. If you need anything, please, let us know.

Kulturarik gabeko herria arimarik gabeko herria dela esaten da maiz. Eta ados nago. Izan ere, kulturarik gabe noraezean ibiliko ginateke, galdua. Herri bezala ez genuke inolako etorkizunik izango.

Baina... zer da kultura? Zer dira tradizioak? Eta... zergatik mantentzen ditugu?

Egia da galdera hauek ez dutela erantzun errazik. Bi hitzekin ez litzateke nahikoa izango.

Hala ere, aspaldi lagun batek esan zidana gogora ekarri nahiko nuke. Horrela esan zidan: “tradizioak nor garen inoiz ere ez ahazteko mantentzen ditugun jokabideak dira”.

Beraz, eta baieztapen hau ontzat ematen badugu, mantendu ditzagun gure ohiturak bizirik nor garen inoiz ere ahazteko. Horrek emango baitigu herri izateko benetako arrazoia.

La cultura transmite sentido de identidad. Nos ayuda a formar parte de una Comunidad. Ese sentimiento de pertenencia nos ofrece cobijo en un mundo cada vez más globalizado.

Da lo mismo en qué lugar o país nos encontremos. Estoy seguro de que cualquier brasileño, boliviano, kazajo, húngaro o keniano se sentiría más cerca de su casa si acudiera a ver las actuaciones que estos días ofrecéis en Portugalete. Eso tiene un valor incalculable. Ese sentimiento es lo que logran despertar nuestras tradiciones y costumbres culturales.

El Festival de Folklore de Portugalete nació hace más de 50 años. Lo hizo en pleno franquismo. En una época oscura de nuestro pasado reciente en que el euskera y la cultura vasca eran perseguidas.

Desde entonces nos visitan personas como vosotras y vosotros que nos acercáis el folklore, la música, la danza y las tradiciones de vuestros Pueblos. Personas que traéis color y nos brindáis la oportunidad de construir puentes de unión entre nuestras culturas.

Gracias a todos los grupos por acompañarnos y ofrecernos lo mejor de vuestra tradición. Constituís, a lo largo de esta semana, una “embajada cultural” de vuestro País en Euskadi.

Nuestro deseo es que disfrutéis de vuestra estancia y os convirtáis, también, en embajadoras y embajadores de este nuestro País, Euskadi, que aspira a ser conocido y reconocido en el mundo.

Azken hitz batzuk eskaini nahiko nizkioke Elai Alai Dantza taldeari.

Oso gertutik ezagut dut beti zuen jarduna eta konpromisoa. Asko estimatzen dut Portugaleten izan duzuen eragin positiboa eta nazioartean ere lortu duzuen.

Zuen ahaleginari esker, urtez urte, mundu osoko kulturak Euskadin elkartzen dira eta gure kultura ere mundu zabalean hedatzen laguntzen duzue.

Dantza eta musikaren bidez Herrien arteko zubigintza eraikitzen duzue eta gaur egun horrelako jarrerak inoiz baino beharrezkoagoak dira.

Gaur, ozen eta harrotasunez esan dezakegu: Katea ez da eten eta, zuei esker, argi dugu ez dela etengo.

Eskerrik asko!